

EUSKARAREN PAPARAZIAK

E u s k a r a M e r k a t a r i t z a r a

“Euskara Merkataritzara” plana garatzen dugun udalek (Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Gares, Oltza Zendea, Uharte eta Zizur Nagusia), Karrikiri Euskaldunen Elkartearekin elkarlanean, euskara, merkataritzara eta argazkilaritza uztartzen dituen lehiaketa honetan parte hartzeko deia egiten dugu.

LEHIAKETAREN OINARRIAK ⁽¹⁾

Parte-hartzaileek Iruñerriko eta Garesko saltokietan ikusgai eta euskaraz dauden errotuluei, kartelei edo bestelakoei argazkiak atera, eta *WhatsApp* edo *Telegram* aplikazioen bidez bidali beharko dituzte 605 75 40 17 zenbakira.

Antolakuntzak, argazkiaz gain, bidaltzailearen telefono zenbakia ere gordeko du, irabazle suertatuz gero, harremanetan jartzeko ⁽²⁾.

Euskara eta merkataritzara hobekien uztartzen dituen argazkia bidali duenak irabaziko du lehiaketa (originaltasuna eta argazkiaren kalitatea ere baloratuko dira), eta gainerako parte-hartzaileen artean hiru sari zozkatuko dira.

Lan originalak aurkeztu behar dira; argazkiei ukituak egin ahal izango zaizkie, baina ez da fotomuntaketarik onartuko. Halaber, ezingo dira izan beste argazki lehiaketa batzuetan saritutakoak.

Ez dago adinari zein jatorriari ezarritako mugarik; beraz, edonork parte hartu ahal du lehiaketan, baina gehienez 5 argazki aurkeztuta (gehiago bidaliz gero, lehen 5ak onartuko dira). Sariduna 16 urtetik beherako pertsona bada, saria saridunaren guraso edo tutore legal batek jaso beharko du.

Argazkian ezin da agertu egilearen izena eta ezta egilea identifika dezakeen elementurik ere.

Antolatzaileek jasotako argazkiak erabili ahal dituzte “Euskara Merkataritzara” eta “Euskara Nonahi” egitasmoetan, eta baita egitasmo horiek sustatzeko antolatutako erakusketa edo bestelako ekitaldietan ere. Erabiliz gero, egilea nor den aitortuko dute.

Lehiaketa bukatutakoan, jasotako argazki guztiak “Euskara Merkataritzara” planaren blog honetan jarriko dira ikusgai: <https://euskamerkataritzara.wordpress.com/>

LEHIAKETAREN EPEAK

Argazkiak apirilaren 6tik 26ra bitartean bidali ahal izango dira. Epe hori baino lehenago edo beranduago bidalitakoek ez dute lehiaketan parte hartuko.

SARIAK

Lehiaketaren irabazleak ekainaren 1etik uztailaren 31ra bitartean Iruñerriko eta Garesko zenbait saltokitan gastatzeko 500 euroko txartela irabaziko du.

Halaber, parte-hartzaileen artean 100 euroko beste hiru txartel zozkatuko dira; txartel horiek ere aipatutako epe eta saltokietan gastatu beharko dira.

Pertsona bakoitzak ezingo du deialdi berean sari bat baino gehiago jaso; zozketan lehendik saritutako norbait aterako balitz, ez da kontuan hartuko eta saria berriro zozkatuko da.

EPAIMAHAI A

Irabazlea erabakitzeko Iruñerriko eta Garesko Euskara Zerbitzuek eta Karrikiri Elkarteak epaimahaia izendatuko dute, apirilaren bukaerarako epaia emango duena.

⁽¹⁾ Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

⁽²⁾ Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatuarekin bat, parte-hartzaileek bere baimena ematen dute bere datu pertsonalak erabili ahal izateko. Datu horiek lehiaketaren parte-hartzaileen fitxeroan sartuko dira, eta soilik horrekin lotutako helburuetarako erabiliko dira. Fitxero horren jabea Berriobeitiko Udala da. Berriobeitiko (31195) Udaletxe plazako 1.era jo beharko da datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko.